



# ISIDRO LARRAÑAGAKOAK, EUROPAN LEHIAN

Tolosako Akordeoi Orkestrakoak European Festival of Accordion Orchestras-en hartuko dute parte, hilaren 30ean >3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2010-10-21

VIII. URTEA 2.105. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Chacoko Wichi komunitatean hezkuntza gabezi larriak dituzte. NEREA ARREGI



Roberto Ruiz eta David de Jorge ikusmina piztu zuten Zerkausian. A. IMAZ

## Pedro Pasabanek hitzaldia eskainiko du gaur 20:00etan

**TOLOSA** Mikologia jardunaldien baitan, etzi, sukaldariak berriro ere kalera irtengo dira 2

## ARGENTINAKO CHACON BIZITUA KONTATU DU NEREA ARREGIK

**BELAUNTZA** Argentinan egin ditu praktikak Arregik; ondoren bertan jarraitzeko aukera eduki du, iparraldeko komunitate txiroenetakoan 5

**'Etzi' antzezlanaren** ikusteko aukera egongo da bihar 20:30ean Leidor aretoan

**TOLOSA** Karlos Linazasoro idazlearen ipuin batean oinarriturik dago lana 7

**Herrigunea** eraldatuko duten lanak datorren hilean hasiko dira

**ORENDAIN** Besteak beste, lau solairuko balioantzeko eraikina egingo dute 4



TXOKOR hitza

HITZAK sarrera pare bat du

**LAGUN ARO GBC ASEFA ESTUDIANTES**

saskibaloia partidarako

Urriak 24 • Igandea • 18:30ean Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK bi sarrera pare du

**Tolosako Leidorren estreinatuko den ETZI antzezlanerako**

Urriak 22 • Ostirala • 20:30ean



## E Elkarrizketa

PEDRO PASABAN » Azanzadi Zientzia Elkarteko Mikologia saileko kidea

# «Mendian lorratzik utzi gabe ibili behar da»

**Gizartea** » Tolosako Casinok 125 urte betetzen dituen honetan, Mikologia jardunaldiak antolatatu ditu. Gaur 20:00etan, hitzaldia egongo da bertan.

## ASIER IMAZ

Perretxiko eta onddoen inguruan hitz egingo du Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea den Pedro Pasabanek (Tolosa, 1941), gaur 20:00etan Casino Elkartean.

Tolosarra txikitari hasi zen perretxiko bila, «hobby bezala», egun ordea, oinak dituen liburu bilakatu da.

**Nondik helduko diozu gaiari gauro hitzaldian?**

Lehen Tolosan Mikologia jardunaldiak burutzen ziren eta hitzaldia horrekin hasiko dut, hau da, garai hartan ikasitakoa errepasatuko dut. Orain, berriz ere mikologiaren inguruko ekimenak berpiztu nahi direla dirudi eta egokia iruditzen zait horrela hasta.

**Perretxikoez hitz egitean, normalean bi gauza izaten ditugu buruan: mendira bila joatea edo sukaldatzea.**

Nire kasuan ez da horrela izaten. Mendira joaten naiz baina ikertzeko helburuarekin. Sukalde kontuetan berriz, ez dut ezagutza berezirik.

**Berezi xamarra zaitugu beraz.**

Ez. Nik horrela ulertzen ditut perretxikoak; mikologoa naiz, ez mikofagoa.

**Hala eta guztiz ere, hitzaldian 45 espezie jangarrien inguruan hitz egingo duzu.**

Onddoak definituko ditut bertan: nola bizi diren, non eta nola gartzatzen diren, eta gero, jatekoak diren edo ez. Baina azken hau, gizakiak onddoekin egiten dugun gauza bat besterik ez da. Beste funtzio batzuk ere badaude eta horietaz ere hitz egingo dut.

**Has gaitzen kontsumorako diren horiekin.**

Gure ingurunera begira hasiko naiz, eta hemen aurki ditzakegun perretxiko jangarri gehienak aipa-

tuko ditut. Behar dena baino gehiago ez biltzeko ere esango dut, edo desagertzearen dauden perretxikoak ukitu gabe bertan uztea behar hitz egingo dut. Toxikoak zeintzuk diren eta elkar nahastea erraza dela ere erakutsiko dut hitzaldian.

**Toxikotasunak sortzen dituen eraginez hitz egingo al duzu?**

Ez dut azalduko zenbateko edo zer nolako toxikotasuna duten, ezta ere zein produktu kimiko dituzten. Perretxiko toxiko eta jangarriak bereziko ditut soilik. Eta noski, nola desberdindu behar ditugun ere erakutsiko dut.


**Nori zuzenduriko hitzaldia eskainiko duzu?**

Oro har, ezagutza handiegirik ez duen jendearentzat izango da hitzaldia. Intoxikatzearen arrisku handiena hauek baitute. Mendira joateko ohitura handiegirik ez dutenek, perretxikoak ikusi eta nahi gabe gaizki hartzen dituzte, bere osotasunean hartu beharrean, zurtoinetik moztu eta gero eurek jan edo banatu egiten dituzte, sailkapen zehatza ongi begiratu gabe.

**Betiko borroka da baina, zure ustet, nola moztu behar dira perretxikoak?**

Argitalpen desberdinetan desadostasun batzuk egon arren, Aranzadiko kide guztiok gauza bera gomendatzen dugu: perretxikoa edo onddoa osorik hartu behar da, kutxiloarekin moztugabe. Modu hau agian ez da ekologikoa baina garrantzitsua da onddoa bere osotasunean hartzea. Askok txapela antzeko izaten dute baina zurtoineko ezaugarriak erabat desberdinak. Horrela, nahasketak ekiditen dira, txapelaz gain beste ezaugarri bereizgarri guztiak agerian gelditzen baitira.

**Naturarentzat kaltegarri...**



EDURNE AYUSO

Zentzu batean izan daiteke, bai baina adibide batekin azalduko dizut: Zuhaitzetik sagar bat hartzen, adaxka eta guzti hartzen baldin baduzu, adarraren zati txiki bat izoratzen ari zara. Hala eta guztiz ere, zuhaitzari ez diogu kalte handiegirik egingo. Hori bai, sagar asko adaxkarekin hartuz gero, zuhaitza zuritzen ariko ginatke, fruitu berriak emateko behar dituen adarrak kaltetuz.

**Kontua orduan zera izango litzateke: ezagutza duenak perretxikoa mozte eta zalantzan dagoenak osorik ateratzea.**

Baina horrela ibiltzea zaila da, ba-

tez ere ohitura handirik ez duen jendearen artean: «hau moztu egin behar duzu eta hori ez». Horregatik, arau orokor bezala, bere osotasunean ateratzea gomendatzen dugu guk.

**Mendira joan eta perretxiko txarrei ostikoa emateko ohitura hori, zer iruditzen zaizu?**

Hori kultura akats bat da. Baina ez perretxikoekin bakarrik, ekologia eta edukazio arazo bat ere bada. Perretxikoak bere horretan utzi behar dira, basotik lorratzik utzi gabe pasa behar da. Hau da, ondoko perretxikoak hartzen ditudanean lurrean zulotxo bat utz deza-

ket, baina ez gehiago. Batzuk diote: «Nik hautsi egiten ditut txarrak, ondoren datorrenak ez hartzeko eta ez intoxikatzeke». Irizpide hori absurdu bat dela iruditzen zait. Perretxiko bila doanak jakin behar du zer bildu behar duen, eta ez badaki hoberena bertan uztea du. Beste batek agian, argazkiren bat ateratzeko edo biltzeko behar du nahi eta jangarriak ez diren, ikerketak egiteko eta abar. Horretaz gain, mendira joatean dena txikituta aurkitzen baldin baduzu, oso sentsazio txarrekin itzultzen zara. Niri behintzat hori gertatzen zait.

**Zen in da aurkitzerako unean, ilusio gehien egin dizun perretxikoa?**

Oraindik bildu ez dudan hori. Espezie desberdinetako perretxikoak biltzen joaten zarenean, interes gehiena aurkitu ez duzun horrek pizten dizu. Trofeo bat bezala izaten da.

**Espezie berri hori edo oro har perretxikoak aurkitzean, zer egiten duzu?**

Nire maila ez da unibertsitekoa eta nire baliabideak ez dira zentro handi batekoak. Nik lehenik ingurunea deskribatzen dut: lur eta baso mota, urtaroa... Ondoren, ahalik eta ezaugarri gehien aztertzen ditut: kolorea, usaia, zaporea...

**Mendian bertan dastatzen duzu zaporea?**

Bertan edo ondoren. Puxketa bat kendu eta dastatu egiten dut, gozoa, geza... edo nolako zaporea uzten duen jakiteko. Hainbat sentsazio bildu ondoren, sailkatu egiten ditut. Zalantzak badituzte lagunekin aztertzen dut eta oraindik ez badituzte argitu kezka, zentro handi batera bidaltzen dut dokumentazio guztia.



## Telebistako izar eta guzti

**EGITARAUA** » Herenegun David de Jorgel eta Roberto Ruizek hainbat perretxiko mota prestatu zituzten Zerkausion, jendearen ikusmina piztuz. Gaur, Pedro Pasabanen hitzaldia egongo da Casinon eta bihar,

hilak 22, eskualdeko haurrak mendira joango dira perretxiko bila. Etzi berriz, 11:00etatik aurrera, Tolosaldeko jatetxe batzuetako sukaldariek pintxoak prestatuko dituzte Trianguloan. A. IMAZ

Beti alai  
jatekoa

Garaian  
garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

# Duela hiru urte lortutako saria defendatzera

**Musika** » European Festival of Accordion Orchestras-ean hartuko du parte Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak.

**INIGO TERRADILLOS**

Europar nahiz mundu mailan sona handia duen Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa hartuko du Tolosak datorren asteburuan. Baina, egun horietan izango da musikarekin loturiko beste lehiaketa entzutetsurik ere, European Festival of Accordion Orchestras, hain zuzen. Pragan izango da, eta Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak hartuko du parte, duela hiru urte lortu zuen sari nagusia defendatzeko asmoarekin.

Guztira Suitza, Alemania edota Txekiar Errepublikako 14 orkestrak hartuko dute parte Akordeoi Lehiaketan. Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kasuan, bi talderekin ariko dira lehian. Bate-tik, sari nagusirako, 26 lagunez osaturiko helduen taldea igoko da taula gainera. 18 minutuko iraupena izango duen emanaldia eskainiko dute, eta joko dituzten abestien artean lehiaketak berak parte-hartzaile guztiei beharturiko bat egongo da.

Beste taldea, gazteek osaturikoa izango da, eta horiek junior kategorian lehiatuko dira. Hain zuzen ere, kategorია horretan lehiatzeko

taldekideen %70k 16 urtetik behera izan behar dute. Parte-hartzaile hauek 12 minutuko emanaldia egin beharko dute gehienez, talde bakoitzak aukeratu dituen obrekin.

**Bidaia berezia**

Bai helduena, bai eta gazteena, bi emanaldiak datorren larunbatean, hilaren 30ean, goizez izango dira, eta arratsalde horretan bertan jaikingo dute irabazi duten ala ez. Dena den, Pragara egingo duten bidaia baliatuz, emanaldi gehiago ere eskainiko dituzte Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrakoei. Au-

«**Oso zaila da duela hiru urte irabazitako saria lortzea, baina helburu horrekin joango gara**»

rreko egunean, hilaren 29an, Evangelic Salvator elizan joko dituzte lehiaketarako prestaturiko obrak, eta baita Guridiren *El Caserío* ere. Lan honetarako, gainera, laguntza berezia izango dute, Juan Urretabizkaia, Onintze Artxuaga eta Garazi Artetxe Udeberriko dantzariena, hain zuzen.

Taldeko partaide nahiz lagunen eta familiako kideen artean 77 lagun joango dira bi autobusetan bago-tan. Lehiaketan parte hartu eta emanaldi gehiago eskaintzeaz gain, astebukacera berezia igaroko dute guztien artean.



Goian, sari nagusirako lehiatuko diren helduen taldea; behean, junior kategorian ariko direnak. HITZA

**«Ilusioz beteriko»**

Isitxo Larrañaga Akordeoi Orkestrako zuzendariak azaltzen duenez, «ilusio handiarekin eta gogotsu» daude lehiaketa handiaren bezperetan. «Badakigu duela hiru urte gertatu zena errepikatzea oso zaila izango dela, baina, helburu horrekin goaz. Dena den, guretzat funtsezkoena geure buruekin gustura gertatzea, disfrutatzea da».

Lehiaketara maila egokian iristeko etengabe ari dira entseguetan parte hartuko duten kideak. «Bai bakoitza bere kabuz, bai eta taldeka ere, gogor ari gara lanean», dio Larrañagak.

**30 urteko historia**

Duela 30 urte sortu zen Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra. «Kilometroak jaia hartu zuen Tolosak

eta bertan akordeoi emanaldi bat eskaintzetik sortu zen», azaltzen du. Orduetik gauzak asko aldatu dira dio; «lehen herriz herri ibiltzen ginen emanaldiak eskaintzen, baina, gaur egun, oso gutxi izaten ditugu, batik bat bizi dugun egoerak bultzatuta. Horregatik horrelako lehiaketetan parte hartzea da dugun aukera bakarretakoa», dio Isitxo Larrañagak.

## Gurasoen Topaketak antolatu ditu Udalak

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuek Gurasoen Topaketak antolatu dituzte, seme-alabekiko harremanak hobetzeko helburuarekin. 16 urte arteko seme-alaben gurasoei zuzendua dago ikastaroa, eta azaroaren 18an hasiko da. Ostegunero izango dira saioak Errota Haur Liburutegian, otsailaren 24a bitarte, 15:15etatik 16:45etara.

Berataratzen diren aiten eta amen beharretara egokituko dira topaketak, beraz, taldearen arabera zehaztuko diragaiak. Esaterako, aurreko urteetako partaideek aurkezturiko gaiak kontuan izanik, hauek dira landutako batzuk: garapen psikologikoa haurtzaroran, seme-alaben autoestimua eta autonomia, baloreen heziketa, aisial-

dia eta denbora librearen kudeaketa, anai-arreben arteko liskarrak eta zeloak, bizitzarako trebetasunak, komunikazioa, elikadura nahastak, arauak eta mugak, jostailuak eta jolasak...

Izena ematen duten guraso kopuruaren arabera, bi talde egingo dituzte, bata euskaraz eta bestea gazteleeraz izateko. Tolosako udal-tereko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen gunean eman daiteke izena, astelehenetik ostiralera (ostegunetan ezik), edota 943 69 74 60 zenbakira deituta. 60 euro ordaindu beharko dira eta asistentzia %80 baino gehiago dutenei 50 euro itzuliko zaie. Azaroaren 5a izango da izena emateko azken eguna, eta plazak mugatuak direnez, Tolosan bizi direnek lehentasuna izango dutela adierazi dute.

## Antton Arroniz azkenekoz izango da etzi, piper erreak azokan saltzen

**Gastronomia** » «Piperrik ez dagoela-eta» ez da datozen larunbatetan Berdura plazan izango.

**ERREDAKZIOA**

Larunbateroko azokan azkenekoz izango da etzi, Antton Arroniz. Pasa den urtean bezala, Berdura plazan izan da urriaren 2az geroztik Lodosako pikiloa edo Mendabiako pikoa bezalako piperrak erretzen eta ondoren salgai jarritz, baina «piperrik ez dagoenez», ez da datorren astatetik aurrera Tolosako azokan izango. Hori bai, aurrerago etortzerik ez du bazter-tzen Arronizek.

## Laburrak

**BTT martxa antolatu du iganderako Oargi elkarteak**

**KIROLA** » Igande honetarako, hilaren 24rako, BTT edo mendiko bizi-kleta martxa antolatu du Oargi Mendi Elkarteak. Hain zuzen ere, 08:00etan egin dute hitzordua Tolosan, eta bertatik autoz abiatuko dira guardetxeraino. Handik burutuko dute ibilaldia Amezketan amaitzeko. Lau ordu inguruko buelta izango dela azaldu dute antolatzaileek. Animatzen direnek 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo bestela [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi.

**Zuzenketa.** Atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO alearen seigarren orrialdeko *Ezin euskaraz erregistratu* albistean, haurrak euskaraz Tolosan soilik erregistratu ahal direla jartzen zuen. Ez da zuzena, ordea, Leitzan eta Areson ere egin baitaiteke.

**X. Mus Txapelketa Azkarra azaroaren 13an Beotibarren**

**AISIA** » Fronton kafetegiak antolatuta, X. Mus Txapelketa Azkarra izango da azaroaren 13an, Beotibarren. [fronton@jeub.org](mailto:fronton@jeub.org) helbideran edo 943 65 14 70 zenbakian eman daiteke izena. Bikoteko 30 euro ordaindu beharko dira, eta hauek izango dira sariak: txapeldu-nek 1.200 euro, txapelak eta garai-kurrak; bigarrenen 600 euro eta antolatzaileek. Animatzen direnek 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo bestela [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi.

**Lizentzia Udal etxebizitza tosatuak**

Udal etxebizitza tosatuak

943 670 700

943 670 700

# Datorren hilean hasiko da herrigunearen eraldaketa

## Orendain »

Eskolapioen lursailean balioanitzeko eraikina eta etxebizitza berriak egingo dira; horrez gain, oinezkoentzat izango da udaletxea eta elizaren arteko gunea.

IMANOL GARCIA

Orendaingo herriguneak aurki eraldaketa handia izango du. Eskolapioen eraikina bota egingo dute eta lursail horretan etxebizitza berriak eta balioanitzeko eraikina egingo dute. Eskolapioetan frontoia mantenduko dute eta aterpetxe bat egiteko asmoa dute. Obrak datorren hilean hasiko dira eta bi urteko epean bukatuko direla aurreikusten da. Eraikuntzez gain, urbanizazio lan garrantzitsuak egingo dira. Tomas Plazaola alkateak azaltzen duenez, balioanitzeko eraikinak «XXI. mendeak eskatzen duen zerbitzu batzuk izatea ahalbideratuko digu. Zerbitzu on bat eman nahi diegu bai haurrei eta baita adinekoiei ere, eta horrez gain, ekintzak sortu Orendain lo-lekua izan ez dadin».

Orain dela zortzi urte Udalean ikusi zuten «eraikin bat behar genuela bai haurreskola, bai adinekoentzat, bai gazteentzat eta beste zerbitzu gehiago hartuko zituena», dio alkateak. Hasierako ideia Erretoretxearen ondoan dagoen lursail batean egitea zen eraikina, baina Eskolapioen lursailean etxebizitza egitearen proiektuaren garapenak aldatu egin du asmo hori.

Izan ere, Eskolapioen lursailean 19 etxebizitza eta bi lokal komer-

tzial egitea aurreikusten zen. Krisi ekonomikoak atzera bota zituen hainbat erosle eta proiektua birplanteatu behar izan zuen Udalak. «Azkenean planteatu dena da Eskolapioen lursailean etxebizitzetarako hiru eraikin egin beharrean bi eraikin egitea eta beste eraikina zerbitzu anitzetarako bideratzea», argitzen du Plazaolak. «Horrek argi bat ematen zion proiektu guztiari bideragarritasuna emateko. Heren bat Udalak hartzen du eta beste bi herenak etxebizitzek hartzen dute».

Obra guztia, bai etxebizitzak bai balioanitzeko eraikina, enpresa berdinak egingo du. Oraingo proiektuan 12 etxebizitza eta bi lokal komertzial izango dira. Etxebizitzak prezio tasatukoak izaten jarraitzen dute. Oraingoz etxebizitza erosteko asmoz lau lagunek eman dute izena.

## Lau solairuko etxea


Balioanitzeko eraikinak lau solairu izango ditu. Behekoan haurreskola kokatuko da eta lorategi txiki bat izango du. Egun haurreskola udaletxearen dago, baina irisgarritasun baldintzak ez ditu betetzen, bertara iristeko eskailerak igo behar direlako.

Lehen solairuan hirugarren adinekoentzako zerbitzuak egongo lirake. «Ikerketa bat egin daikuskeko zein diren adinekoen beharrak herrian», dio alkateak. «Oraindik ikerketa gehiago sakonduko da behar horiek zehazteko. Horregatik oraindik ez da guztiz erabaki nola partejatuko den solairu hori».


Gaur egun hirugarren adinekoentzako zerbitzuak Erretoretxean ematen dira, Urkoa elkartearen bitartez. Adinekoentzat zerbitzuak eta haurreskola Abaltzisketarekin batera bideratzen ditu Orendai-



Eskolapioen eraikina eraitsiko dute eta ondoan egingo dituzte etxebizitza berriak eta balioanitzeko eraikina. I. GARCIA



Obrak egin ondoren herriguneak izango duen itxura. HITZA



Balioanitzeko eraikinaren plano. HITZA

## Urbanizazioaren kostua 500.000 eurokoa izango da eta Udalak herena ordaindu beharko du

nek. Aurrera begira ere elkarlanean jarraitzeko asmoa azaldu du Plazaolak.

Bigarren solairuan ekintza anitzetarako lokalak egingo dituzte. Hirugarren solairuan kokatuko dira kultura arloaren inguruko zerbitzuak: liburutegia, KZgunea, eta bilerak egiteko gelak. Etxearen diseinuak lehengoko jauregien itxura izango du. Azken solairua egurrezkoa izango da eta argitairua handia izango du.

## 761.000 euroko kostua

Foru Aldundiaren Landagipuzkoa 32 egitasmoaren diru laguntza jasoko du Udalak balioanitzeko eraikina egiteko. Guztira kostua 761.000 eurokoa da eta Aldundiak 600.000 euro emango dizkio Udalari.

Bestalde, urbanizazioaren kostuaren herena Udalak hartuko du eta etxebizitza berrientzat izango dira beste bi herenak. Proiektu berriaren inguruko urbanizazioa egiteaz gain, eliza eta udaletxearen arteko gunea oinezkoentzat jarriko dute eta errepede bat irekiko dute gune hori inguratuz. Urbanizazioaren kostua 500.000 eurokoa izango da. Udalak, berari dagoen kopurua ordaintzeko, mailegua eskatu behar izan dio Kutzari.

**DENAK**  
taberna

**URTEBURUENA**

943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua  
20400 Tolosa

**Asteleheneetik ostegunera ogitartekoetan  
2 pertonentzako 2x1 eko eskaintza**

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, aurretik tabernara deitu dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, harpidedun txartela ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraungitze data, 2010eko abenduaren 31

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

**DENAK**  
taberna

**2x1 eskaintza**

Izen - Abizenak: .....

Harpidedun kodea: .....

Erreserba eguna: .....

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

REBEKA CALVO

**A**rgentina osoan «asistentzialismoaren politika» bultzatzen du Gobernuak Nerea Arregiren (Belauntza, 1989) hitzetan. «Eva Peronekin hasi ziren eta oraindik bultzatzen duten zer baita. Jende asko dago horerorita, diru kopuru edo janari poltsa baten truke saltzen dira, ez dute beste irtenbiderik ikusten. Erabateko menpekotasuna dute», dio.

Pasa den urteko otsailean joan zen Arregi Argentina aldera beste lagun batekin eta uztailean itzuli ziren. Gizarte Laguntza ikasi du belauntzarrak eta otsailetik maiztera praktikak egitera joan zen, ondoren bidaiatzeko asmoarekin. Lehen hilabeteak uste bezala joan ziren, praktikak egin zituzten, baina ondoren Chacoko egoeraren berri izan zuten, eta beraz Txile eta Bolivia ezagutzeko asmoa bazuten ere, azkenean Argentinan bertan geratu ziren, Chacon. Iparraldeko probintzia honetan «baldintza oso txarretan» bizi dira, gizartetik guztiz kanpo daude eta Gobernuak ez dauka bultzatzen duen «asistentzialismo» horri buelta emateko inongo asmorik. «Azpi-azpian daude, sistematik at», argitu du Arregik.

#### Cordobatik Chacora

Chacoko egoeraren berri Santa Fe probintzian zeudela izan zuten eta bertan hasi ziren hara joateko bidaia antolatzen. «Cordoba probintziako talde batekin jarri ginen harremanetan eta bertako arduradunarekin hitz egitera joan ginen. Hara joateko interesa agertu ginen, baina beraiek hiru hilabetez behin bakarrik joaten dira hara, eta beraz, gure kabuz joan ginen», esan du. «Kanpin-denda hartu, zakuak bildu eta haruntz abiatu ginen», gogoratzen du Arregik.

Ekaina osoa eman zuten han eta uztailean hasi ziren balorazioa egiten, «errola egin genuen, azterketa sozio-komunitarioa, egoera aztertu genuen...».

Hori egitean ateratako lehen ondorioa, nagusia, hauxe izan zen: «azpi-azpian daude, erabat baztertuta daude, ez dute zergarik ordaintzen, eta beraz, ez dute argindarrik, ez dute urrik, hezkuntza sis-

Nerea Arregik Argentinan egin ditu praktikak. Gizarte Laguntza ikasi du belauntzarrak eta pasa den otsailean abiatu zen bertara beste lagun batekin. Praktikak egin ostean, Chacoko egoera «benetan latza» bizitu zuen.

## Argentinako ahaztuak



Chacoko Wichi komunitatean ateratako argazkia, non hezkuntza gabezi larriak dituzten. N. ARREGI

tema urria dute, osasun arazoak...».

Chacoko hiriburua Resistencia da, bertan argindarra, unibertsiak eta abar dituzte, noski, baina ez inguruan. Bertako herriak para-jeetan banatzen dituzte, eta Nerea Arregi eta Jabi Wichin izan ziren. «Chaco probintzian hiru talde daude: Wichi, Toba eta Macobi. Hiru komunitate hauek Colon joan aurretik zeuden han eta ordu-

tik bazterketa itzela pairatzen dute».

«Gaur egun jasaten duten bazterketa ere oso nabarmena da. Wichin gertuen dauden herria 8 kilometrotara dago, gu geunden para-jea basoaren erdian dago eta beraz, medikura joateko edota eskolara joateko kilometro asko egin behar izaten dituzte oinez», dio.

Gobernuak etengabe bazter-tzen ditu eta hauteskunde garaian

bakarrik egiten die «kasu pixka bat». «Gobernuak orain 10 urte abiarazi zuen proiektu bat, baina bertan behera utzi zuten segituan. Beraiek adobezko etxolatan bizi dira eta Gobernuak adreiluzko etxebizitzak egiteko erabakia hartu zuen, hiru bat egin zituzten, hauteskunde garaian, eta ondoren utzi egin zuten. Gaur egun ere gauza bera egiten dute, hauteskunde garaian janari poltsa bat ematen

diete bozaren truke, eta gero ahaztu egiten dira beraietaz».

Aipatu moduan Nerea Arregi eta Jabik Chacoko egoera hobetu ahal izateko azterketa egiten aritu ziren bertan. «Gure asmoa dituzten beharriak antzematea zen -dio Arregik- eta aldi berean, komunitateak aurrera egin ahal izateko irtenbideak bilatzea. Izan ere, orain adreiluak egiten bakarrik ateratzen dute diru urria».

Horiek horrela, gabezi asko dituztela dio belauntzarrak, eta lehen, uraren beharra: «Aljibeak dituzte, baina Gobernuak egindako adreiluzko etxe horietan bakarrik, eta oso gutxi dira. Gainontzekoek urmaeletik hartzen dute ura, eta oso kalitate baxuko ura da. Ez daukate etxebizitza duinak eta hezkuntza aldetik ere gabezi asko dituzte. Gobernuak ez du eskolarik egin bertan, daukatena GKE batek egindakoa da. Osasun aldetik ere gabezi asko dituzte; medikurik ez daukate esaterako, izan ere, medikuek ez dituzte artatu nahi, bakar batek onartzen ditu. Orokorrean erabat baztertzeko dituzte».

Nerea Arregik ozen salatu nahi du egoera hau, nahiz eta badakien urtetako zapalkuntzari aurre egitea oso zaila izango dela eta horretan aurrerapauso handia litzateke beraiek ere ozen salatzea euren egoera: «Oso zapalduta egon dira beti. Milaka lagun hil zituzten, eta oso modu basatian gainera (askotan kontatzen dute zaldun zuri batek gidatutako zaldi batetara lotzen zituztela eta arrastaka kaktusen artean paseatzen zituztela, beste horrelako milaka konturekin batera). Horregatik dira, nik uste, horren otzanak». «Medikura joaterakoan, esaterako, orduak ematen dituzte zain, medikuek ez diete kasurik egiten, eta hala ere, ez dute ezer esateran», gaineratu du.

Gobernuaren jarrera ulergaitza dela esaterakoan hauxe dio Arregik: «Betiko kontua da, beraiek oso txiroak dira, baina beraien lurrak, aldiz, oso aberatsak. Bertan zuhaitz asko dituzte, haritzak, esaterako, soja transgenikoa jartzen hasi dira... eta lur azpian ere ur asko dute. Gobernuaren asmoa, nire us-tez, hauek baztertu eta pixkanaka desagertzeko da».



Ez dute ez argindarrik ezta urrik ere. N. ARREGI



Adobezko etxolatan bizi dira. N. ARREGI



Gobernuak ez du eskolarik egin nahi paraje hauetan. N. ARREGI

# Kultur Hamabostaldia urriaren 27tik aurrera

**Orexa**» Xabier Erkizia soinu-artistak eta J. M. Izetak hitzaldiak eskainiko dituzte beste hainbat ekitaldiren artean.

**ERREDAKZIOA**

Urtero bezala kultur ekitaldiez betetako egunak izango dituzte Orexan. Herriko Udalak eta Kultura Batzordeak, elkarlanean, antolatzen duten Kultur Hamabostaldia datorren asteazkenean, hilak 27, hasiko da.

Beti bezala antzerki emanaldi bat izango da, kantu saioa, hitzaldiak eta baita kirol jarduerak ere. Kultur Hamabostaldia azaroaren 6an bukatuko da.



Taloak egiten ere ikasi izan dute Kultur Hamabostaldian. E. EZBIZA

**» EGITARAUA**

**Urriak 27, asteazkena**

■ **21:30.** *Drogak, gu eta gizartea* hitzaldia eskainiko du J. M. Izetak.

**Urriak 29, ostirala**

■ **19:00.** Talo eta gaztain afaria.  
■ **Ondoren** herriko bide zaharren proiektzioa.

**Urriak 30, larunbata**

■ **16:00.** Eskalada saioa eta puzgarriak haurrentzat.  
■ **Ondoren** merienda.  
■ **22:30.** Zirika Zirkus taldearen *Pantxika Lamur* antzezlanean emanaldia. Ordu bete inguru irauten du lanak.

**Urriak 31, igandea**

■ **09:30.** XXIII. Uitziz-Orexa ibilaldia.  
■ **14:00.** Herri bazkaria.  
■ **Ondoren** kantu saioa: Garazi Esnaola & Garazi Egiguren.

**Azaroak 3, asteazkena**

■ **21:30.** Xabier Erkiziaren *Zizareak* belarrietan, musikaren boterea hitzaldia.

**Azaroak 5, ostirala**

■ **22:30.** Patxi Saizen kantaldia.

**Azaroak 6, larunbata**

■ **21:00.** Herri afaria.  
■ **00:00.** Gari eta Iñaki trikitaliak.  
■ **Ondoren** DJ Bull.

# Maputxeen inguruko dokumentala bihar

**Anoeta**» 'Aniceto, razon de estado' dokumentala Gaztetxean ikusi ahal izango da 22:00etatik aurrera.

**ERREDAKZIOA**

Anoetako Gaztetxean maputxeen inguruko dokumentala ikusi ahal

izango da bihar, ostirala, 22:00etatik aurrera. «Gaur egun, Hego Ameriketako gaiak pil-pilean dauden honetan, Anoetako Gaztetxean maputxeen gaia aztertzea erabaki dugu», azaldu dute Gaztetxe-kokideek.

«Maputxeen errealitatea hobeto ezagutzeko» asmoz *Aniceto, razon de estado* lana eskainiko dute, hortaz. «Maputxe herria bereziki

Txileko eta Argentinako estatuek zapaltzen dute, eta bere eskubideen alde borrokan ari den beste herrietako bat da», gaineratu dute.

*Aniceto, razon de estado* dokumentalean Araucania eskualdeko Aniceto Norinen historia kontatzen da. Bera, *longko* bat da, maputxe herriko buruzagia, eta bost urte eman zituen kartzelan «mehatxu terrorista» delitua egotzita.



Dokumentaleko irudi bat. HITZA

## Hilberriak

**ADOLFINA ECHAVE MACAZAGA**  
ANERIA

Urriaren 19an hil zene, 82 urte zituela, Etxebarri eta Aita Santuaren Beldin kaparen hartu ondoren.

**—Gaiak—**  
Bere amaren zuzendaria, Juan Jose Mariari; anai-arrebak, Maria Zubillaga eta Jose Mari Garmendia (O); Eusebio Fernandez eta Josefa Oteiza (O); Martin Zubillaga (O); eta Josefa Antia, Melchor Zubillaga (O); Jose Mari Zubillaga (Pedernat); Joseba Zubillaga, Lorenzo Zubillaga (Gure) eta zuzen Pizarro Suro (G). Aitak, lehenengoa, eta gainerako ahizpak, Haren amarekin alde batera bat egin zuten. Hori ere amaren arrebak GALUR OSTEGUNA, 2010eko urteko AZARAREN 14AN, Tolosa SAN FRANCISCO mendiko elizan egingo den hitza da. Aitak aurriak, mila esker.

Hilbidetarako: Asteazkena, 9-3-eko. Oherak: Gorpuzteko Tolosa OIA TANATORIOAN (L) hainbat pila geroz egingo da GALUR OSTEGUNA goizeko 11:00ak arte. Errezeak berria ezarri behar dira 10:45tan antolatuko da elizan bertan.

**BARBIAN**  
2010eko urriaren 27an

**DOLOX TOLOSA TOLOSA**  
Hainegun hil zen, 79 urterekin.

Senarra: Martin Garmendia; seme-alabak: Pabai eta Siri, Marijo eta Ramon, Nekane eta Karlos, bikabak: Alex, Maitia eta Lize; anai-arrebak, ezkon-anai-arrebak, izebak, lehengusua eta gainerako ahizpak.

Gorpua Berozongo Goleiri Beldinaren egozgo da GALUR OSTEGUNA, 2010eko urteko Berozongo erretzean izango da.

**ZALDIRA**  
2010eko urriaren 27a

**Hilbidetarako:** Bik hitz egingo da.

**DOLOX TOLOSA TOLOSA**

Goiko-goko zaindu eta mailatu gaituz biktatik ta beti izango zara gure bihotzetan

**Aitibereta Arkaitz**

**ZALDIRA**  
2010eko urriaren 27a

**IZEBA DOLOX**  
Zurekibak

Halki eta Maite, Pabai eta Mari Jose, Agneta eta Jose Mari, Karmele eta Xabier, Pabai eta Beatriz, Isakun eta Aitor, Gontzi eta Aitor, Leire eta Felice, Aina eta Angel, Fernando, Xabier eta Iosu, Esther eta Joseba, Nerea eta Jaiera eta Ane eta Ane.

Hitz gutiak ez dira rubiko zureganako mailazuzen adierazteko horregatik eramanago zaitezgu beti gure bihotzetan

**ZALDIRA**  
2010eko urriaren 27a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 1900ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943 65 56 95

hilberriak urteurrenak eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN ZURE BETIKO EHOZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA 902 402 900

# 'Etzi' antzezlan «hunkigarria» estreinatuko da bihar Leidor antzokian

**Tolosa** » Karlos Linazasororen liburu baten antzerkirako egokitzapena da Dar Dar ekoiztetxeak egin berri duena.

## ESTI EZEIZA

Dar-Dar ekoiztetxeak bere azken lana, Etzi, estreinatuko du bihar Leidor antzokian. Emanaldia 20:30ean izango da.

Sarrerak Leidorreko leihatilan daude salgai (zine ordutegietan), eta Kutxako kanaletan (Servikutxa, Telekutxa eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)). Hamar euro baliote txartelek.

Jose Ramon Soroz (aitona), Pilar Rodrigez (amona), Asier Oruesagasti (Mattin) eta Gorka Zufiaurre (Bruno), eta Asier Zinkunegi (zerbitzaria) dira antzezlan honetan parte hartzen duten aktoreak.

Asier Zinkunegi zuzendutako lan hau, Karlos Linazasoro idazlearen izenburu bereko ipuinaren egokitzapena da. 2007an idatzi zuen hau tolosarrak. Ipuineko protagonista, Down sindromea duen 13 urteko mutiko bat da. Antzezlanean, Gorka Zufiaurre, 32



Zufiaurre, Soroz, Rodrigez eta Oruesagasti dira 'Etzi' antzezlaneko protagonistak. HITZA

urteko urretxuarrak hartu du bere lekua. Honenbestez, aiton-amona eta bi anaia gazteek osatzen dute familia protagonista etaheldue-

nek, garrantzia handia dute antzerkian.

Down sindromea duen haurbaiten eta bere familiaren istorioa

kontatzen da *Etzi* antzezlanean. Honekin gaixotasun hau duten eta bere inguruko enrealitateak, jendeari hurbiltzea du xede zu-

## » FITXA

- **Antzezlanaren izenburua.** 'Etzi'.
- **Estreinaldia.** Bihar 20:30ean, Tolosako Leidor antzokian izango da.
- **Antzezlanaren zuzendaria.** Asier Zinkunegi.
- **Aktoreak.** Jose Ramon Soroz (aitona), Pilar Rodrigez (amona), Asier Oruesagasti (Mattin), Gorka Zufiaurre (Bruno) eta Asier Zinkunegi (zerbitzaria).
- **Musika.** Pello Ramirez.
- **Testua.** Karlos Linazasororen 'Etzi' ipuinaren oinarritutako egokitzapena.
- **Egokitzailak.** Karlos Linazasoro, Teresa Calo eta Asier Zinkunegi.

zendariak. Hala, antzezlanak, adin guztietako jendeak ikusteko modukoa baldin bada ere, batik bat, gazteenei zuzendua dago.

Asier Zinkunegi zuzendaria, Linazasororen obra irakurtzean, hunkituta geratu zen, eta Dar Dar ekoiztetxearen bitartez, hau antzerkira eramatea erabaki zuen. Abuztuaren hasi ziren prestatzen lana, eta irailaren 10ean, Urnietan egin zuten aurrestreinaldia. Orain, estreinaldirako, Linazasororen herria aukeratu dute. Hortik aurrera, Goierrialdean erelotu dituzte emanaldi batzuk. Hala ere, saio gehienak, datorren urtetik aurrera eskainiko dituztela aurreikusten dute.

# «Errealitatean ematen diren egoerak dira antzezlan honetan agertzen direnak»

**PILAR RODRIGUEZ** » Aktorea

**Kultura** » Leitzako aktorea da antzezlaneko protagonistetako bat; Brunoren amonaren egiten du berak.

## E. EZEIZA

Telebistan, antzerkian eta zinean hainbat eta hainbat lan egin ditu aktore leitzarrak. Oraingoan, amona indartsu eta adoretzu baten papera egokitu zaio Pilar Rodrigezi.

**Antzezlan honen helburu nagusietako bat, jendea sentsibilizatzeko dela esango al zenuke?**

Bai, hori oinarrietako bat da. Baina beste alde batetik, antzezlan arunt bat da, oso hunkigarria eta sentimentuz betetako.

**Istoria serioa izan arren, antzerkiak umore ukituak ere baditu.**

Antzerkiko obraguztia, egun berean gertatzen da. Baina, hor bertan, errealitatean jazotzen diren gertaerak gain, oroimenean daudenak ere ekartzen dira eszenatikira, eta hauetan umorea nagusi da.

**Antzezlanean kontatzen dena,**



HITZA

**askori oso gertukoak egingo zaie.**

Bai, errealitatean ematen diren egoerak dira antzezlanean agertzen direnak, nahiz eta hauek, nolabait, markatuagoak egon taula gainera eramatean. Are gehiago, Gorka Zufiaurren ama hunkituta geratu zuen obra estreinakoz ikusi zuenean, eta bere esanetan, beraraie askotan gertatutako gauzak agertzen dira.

**Gorka Zufiaurren parte-hartzeak, are bereziago egiten du lana ezta?**

Hasiera batean, uste dut, Asier Zinkunegik zalantzak zituela, Brunoren papera egingo zuen aktorea aukeratzeko garaian. Hau da, Down sindromea ez zuen norbait hartu, eta antzeztu zezan. Baina azkenean, Down sindromea zuen mutil bat aukeratzea egokiagoa izango zela erabaki zuen. Gainera, Gorkak aktore gisa, antzerki eta film labor askotan egin du lan, eta hemen ere oso ongi moldatu da. Profesionaltasun handiz egiten du lan eta ilusio izugarriekin gainera.

**Honek obrari balioa eransten dio beraz.**

Zalantzarik gabe. Honek errealitateara gehiago hurbil arazten du obra.

**Antzezlanean, zu, bi gaztetxoan amona zara, baina nolako amona?**

Aiton-amona hauek, askotan, egoerak behartuta, denbora asko igarrotzen dute bilobekin, eta oso garrantzitsuak dira beraien zako. Oporretara ere joan izan ziren ai-

ton-amon horiekin. Ni berriz, une zailetan, indarra atera eta gainontzekoei bultzada ematen dien horietakoa naiz. Nahiz eta une askotan, barrutik, erabat lur jota egon. Hau gordetzen, ezkatutzen, ahalegintzen naiz.

**MUNDUKO SUKALDARITZA** →  
EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 4. alea

ALEMANIA • JAPONIA  
MAROKO • BREITAINIA  
INDIA • MEXIKO • VIETNAM  
ARGENTINA • LIBANO  
ITALIA • TXINA

**berriekin eskaintza berezia**

EGIN ESKAERA  
urriaren 29a baino lehen  
[www.berria.info](http://www.berria.info)  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

Laguntzailea: FAGOR [www.fagor.com](http://www.fagor.com)

Aukeratu ezazu, bizi zuzenean **berria**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Garazi Zabala Martínez (Tolosa).**  
Gaur 5 urte. Galder, Oneka eta etxeokoin ondo pasa. Muxu bat.



## Zapatarien omenezko eguna

**TOLOSA** ● San Crispin zapatarien kofradiako kideek batzar nagusia izan zuten herenegun, eta ondoren Kasino elkartearen afaria egin zuten. Hain zuzen ere, datorren astelehena, hilaren 25a, izango da euren egun handia, San Crispin eguna; 10:00etan meza egingo dute Santa Maria elizan santuen alde, eta zapatariak ez dute lanik egingo. Crispin eta Crispiniano martiriak izan ziren, eta horregatik ditu santutzat eliza katolikoak. Zapatariak ziren lanbidez, beraz, egun horretan zapatariak edota larruarekin lan egiten dutenek jai egin ohi dute. HITZA

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** III. Galtzakomik komiki lehiaketa euskaraz. Gazte eta helduentzat, gai librea. Lanak Galtzaundin entregatu behar dira. Antolatzalea: Galtzaundi Euskara Taldea eta Ibarra Udal.
- **Tolosa.** Zezen plaza auzoko bizilagunek urtero bezala afaria egingo dute, azaroaren 5ean. Izen-ematea, ohiko lekuetan.
- **Tolosa.** Hilaren 23an bertso-afaria lurre elkartearen Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arza-lusekin. Izen-ematea, 943 67 15 32 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Erkki Pohjolaren omenezko Et Incarnatus orkestraren eta hainbat abesbatzaren kontzertua izango da etzi, 20:00etan Leidor aretoan. Sarrerak Leidor aretoan daude salgai, helduentzat 10 eurotan eta haurrentzat 5 eurotan.

- **Tolosa.** Jesusen Zerbitzarietan ibilitako bazkaria hilaren 31n eta aurretik meza bertan 13:00etan. Informazioa eta izen-ematea, 943 67 53 41 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Amaroako Beti gazteak jubilatu elkarteak Lodosara (Nafarroa) irteera antolatu du hilaren 30rako, 08:45ean ateraz Zumardi Txikitik eta 09:00etan auzotik.
- **Tolosa.** X. Rolleski Igoera Belatetik Hernaldera hilaren 23an 16:00etan, klasiko eta patinatzaile estilotan. Izen-ematea, [alpinouzturre@begira.com](mailto:alpinouzturre@begira.com) edo 685 77 65 04 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Azaroaren 4ean eta 5ean, ziklomotorrak aztertzeko estazio mugikorra jarriko dute San Estebaneko ferialekuan.
- **Villabona.** Azaroaren 27an Euskal Herriko lehen antzerkizale eguna antolatu nahi dute. Villabonako

Euskal Herrian Euskaraz horretarako lan taldea osatu nahian dabil eta dei egiten diete beraiekin parte hartu nahi duten guztiei.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Inestable erakusketa GKO Galeriaren eskutik, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongiloak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Ertza erakusketa GKO Galerian.
- **Alegia eta Tolosa.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Alegia-ko Jubilatuen tabernan eta Tolosa-ko Lanbroa tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.

### Hitzaldia

- **Tolosa.** Aranzadi zientzia elkar-

toko Pedro Pasabanek perretxikoa eta ondoak nola jaso eta mota desberdinak azalduko ditu, eta 40 mota jangarri aurkeztuko ditu Kasino elkartearen 20:00etan, elkartearen 125. urtemugan, eta Mikologia Jardunaldien barruan.

### Zinema

- **Tolosa.** *El silencio de Lorna* filma jatorrizko bertsoan emango dute Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>